



INGENIARITZA MEKANIKOKO GRADUA

GRADU AMAIERAKO LANA

2017 / 2018

MOTORE NAUTIKOEN FABRIKAZIORAKO NABE INDUSTRIALAREN DISEINUA ETA KALKULUAK

8. DOKUMENTUA: Berezko entitateko ikerlanak

IKASLEAREN DATUAK

IZENA LEIRE
ABIZENAK ARANA CASTAÑARES

Sinadura

DATA 2017-11-08

ZUZENDARIAREN DATUAK

IZENA IRANTZU
ABIZENAK URIARTE GALLASTEGI
SAILA Ingenieritza Mekanikoa

Sinadura

DATA 2017-11-08

8. BEREZKO GARRANTZIA DUTEN IKERLANAK

8.1. OSASUN ETA SEGURTASUN IKERLANA

8.2. SUTEAREN KONTRAKO SEGURTASUN IKERLANA

8.3. KALITATE KONTROLA

8.4. HONDAKINEN KUDEAKETA



INGENIARITZA MEKANIKOKO GRADUA

GRADU AMAIERAKO LANA

2017 / 2018

MOTORE NAUTIKOEN FABRIKAZIORAKO NABE INDUSTRIALAREN DISEINUA ETA KALKULUAK

8.1. DOKUMENTUA: Osasun eta segurtasun ikerlana

IKASLEAREN DATUAK

IZENA LEIRE
 ABIZENAK ARANA CASTAÑARES
 NAN zk 16097849-B

Sinadura

DATA 2017-11-08

ZUZENDARIAREN DATUAK

IZENA IRANTZU
 ABIZENAK URIARTE GALLASTEGI
 SAILA Ingenieritza Mekanikoa

Sinadura

DATA 2017-11-08

8. BEREZKO GARRANTZIA DUTEN IKERLANAK

8.1. OSASUN ETA SEGURTASUN IKERLANA

8.1.1. AURREKARIAK ETA DATU OROKORRAK	3
8.1.1.1. Segurtasun eta osasun ikerlan arruntaren helburua.....	3
8.1.1.2. Segurtasun eta osasun ikerlan arruntaren egilea.....	3
8.1.1.3. Araudia.....	4
8.1.1.4. Kokapenaren eta obren deskribapena.....	6
8.1.1.4.1. Obren deskribapena.....	6
8.1.1.4.2. Obren iraupena.....	6
8.1.1.4.3. Langile kopurua.....	7
8.1.1.4.4. Erabilitako teknologia.....	7
8.1.1.4.5. Betebeharren prozesua.....	8
8.1.1.5. Obraren sartzeko babesak.....	9
8.1.1.6. Obraren gauzatzearen aurreko lanak.....	9
8.1.1.7. Higiene zerbitzuak, aldagelak eta obra bulegoa.....	10
8.1.2. PREBENTZIO BALIABIDEAK	10
8.1.3. MEDIKU AZTERKETAK, LEHEN LAGUNTZAK ETA ZAURITUEN AZTERKETAK	11
8.1.3.1. Laguntza medikoa.....	12
8.1.3.1.1. Langileen osasun azterketak.....	12
8.1.3.1.2. Botika-kutxa.....	12
8.1.3.1.3. Lehen laguntzen prozedura.....	13
8.1.3.1.4. Zaurituen azterketa.....	13
8.1.3.2. Istripuen komunikaziorako protokoloa.....	14
8.1.4. SUTEEN AURKAKO PREBENTZIOA OBRAN	16
8.1.4.1. Hondakinen eta materialen biltegiatzea.....	16
8.1.4.1.1. Materialen bilketa.....	16
8.1.4.1.2. Botatzeko produktuak.....	17
8.1.5. LANEKO PREBENTZIOAREN INGURUKO INFORMAZIOA	17
8.1.6. BALDINTZA TEKNIKOAK	17
8.1.6.1. Makinen baldintza teknikoak.....	17
8.1.6.2. Baliabide laguntzaileen baldintza teknikoak.....	19

8.1.6.3. Babeserako baliabideen baldintza teknikoak.....	19
8.1.6.3.1. EPlak.....	19
8.1.6.3.2. EPCak.....	20
8.1.6.4. Behin-behineko instalazio elektrikoaren baldintza teknikoak.....	21
8.1.6.5. Osasun zerbitzuen baldintza teknikoak.....	23
8.1.7. ARRISKUEN IDENTIFIKAZIOA ETA NEURRI PREBENTIBOEN AZTERKETA..	
.....	24
8.1.7.1. Obra guztiari eragiten dizkioten arriskuak.....	24
8.1.7.2. Lan arrisku bereziak.....	25
8.1.7.3. Obrako fase bakoitzari eragiten dioten arriskuak.....	26
8.1.7.3.1. Lurren mugimendua eta hondeaketa.....	26
8.1.7.3.2. Zimentazioak eta egitura metalikoa.....	27
8.1.7.3.3. Saneamendu-sarea.....	28
8.1.7.3.4. Estalkia.....	29
8.1.7.3.5. Kanpoko itxiturak.....	30
8.1.7.3.6. Akaberak.....	31
8.1.7.3.7. Instalazioak.....	33
8.1.7.3.8. Behin-behineko instalazio elektrikoa.....	34
8.1.7.4. Makinaria edota instalazioen erabileragatik arriskuak.....	34
8.1.7.4.1. Retro-hondeatzailea.....	35
8.1.7.4.2. Kamioi baskulagarria.....	35
8.1.7.4.3. Dumper.....	36
8.1.7.4.4. Hormigoi makina.....	37
8.1.7.4.5. Pala mekanikoa.....	38
8.1.7.4.6. Soldadura lanak.....	38
8.1.5.7. Makina-erremintak erabiltzearen arriskuak.....	38
8.1.8. DOKUMENTAZIO GRAFIKOA.....	39
8.1.9. AURREKONTUA	51

8. BEREZKO GARRANTZIA DUTEN IKERLANAK

8.1. OSASUN ETA SEGURTASUN IKERLANA

8.1.1. AURREKARIAK ETA DATU OROKORRAK

8.1.1.1. Segurtasun eta osasun ikerlan arruntaren helburua

Ikerketa honek industria-pabiloiaren eraikuntza-proiektuaz dihardu, 2.166 lursailean kokatutakoa. Belako Industrialdeko lursail honetan, PreciCast Bilbao S.A. enpresak garatuko du bere etorkizuneko jarduera.

Segurtasuneko eta Osasuneko Oinarrizko Ikerketa egingo da Laneko Arriskuen aurkako Prebentzioaren gainean eta Urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekreturen, segurtasuneko eta eraikuntza-lanetako osasuneko antolamendu txikienen gainean, eta Azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera egingo da.

Segurtasun eta Osasuneko Oinarrizko Ikerketak honek, istripuen eta gaixotasun profesionalen aurkako prebentzioa du helburu, baita ere konponketa, kontserbazioa, mantenua eta entretenimenduaren lanen eratorriak diren arriskuak ekiditea.

Oinarrizko Ikerketa honetan aurrez ez ikusitako arriskurik eta lanaren garapenean agertzen den hura guztia, beraren segurtasuneko arduradunek aztertuko dute, geroago Kontratatistak landuko duen Segurtasuneko Planean bertakotuko diren babes-neurri gehigarriak hartzeko.

8.1.1.2. Segurtasun eta osasun ikerlan arruntaren egilea

Oraingo Oinarrizko Ikerketaren egilea, Leire Arana Castañares-ek landu du dokumentua, proiektuko gainerako dokumentuak osatuko duen eta Kontratatistari oinarri bezala Segurtasuneko eta Osasuneko Plan burutuko diren lanetarako egokiaren lantzerako balio izango diona. Segurtasuneko eta Osasuneko aipaturiko Planak dokumentu honen edukia osatuko du.

1627/1997 Errege-Dekretuko 3 artikuluaaren espezifikazioei jarraituz, hainbat enpresak edo hainbat autonomok lanean parte hartzen badute batera, Sustatzaileak

kalifikatutako pertsona izendatuko du Segurtasuna eta Osasuna kontuetan Koordinatzaile bezala.

Koordinatzailearen izendapena da Sustatzaileak deuseztatu eta eman ezin duena, ezta ere kontratuz, Kontratistari edota bitartekari bati.

8.1.1.3. Araudia

Lanaren egitea, indarreko legeriak araututa egongo da:

→ **Arau orokorrak:**

- 1995eko azaroaren 8ko, Laneko Arriskuen aurkako Prebentzioko Legea onartzen den 31/1995 Legea.
- Martxoaren 24ko, 1/1995 Errege-Dekretua Legegile, Langileen Estatutuko Legeko eraberritutako Testua onartzen dena.
- Merkaturatzerako baldintzak eta babes indibidualeko taldeen komunitate barneko zirkulazio librea arautzen duen, Azaroaren 20ko, 1407/1992 Errege-Dekretua.
- Urriaren 24ko, 1627/1997 E.D., segurtasuneko eta eraikuntza-lanetako osasuneko xedapen minimoak ezartzen dira.
- Apirilaren 14ko, 485/1997 E.D., segurtasunaren seinaleak jartze kontuetan xedapen minimoak eta laneko osasunaren gaineko xedapen minimoak.
- Apirilaren 14ko, 486/1997 E.D., segurtasuneko eta lantokietako osasuneko xedapen minimoak ezartzen dira.
- Apirilaren 14ko 487/1997 E.D., segurtasuneko xedapen minimoak eta osasun arriskuak berekin dituen kargen eskuzko manipulazioari buruzkoak.
- Apirilaren 14ko 488/1997 E.D., segurtasuneko xedapen minimoak eta osasuna bistaratze-pantailak sartzan dituzten gailuen lanari buruzkoa.
- Maiatzaren 12ko 664/1997 E.D., lanean zeharreko agente biologikoekiko esposizioarekiko erlazionatutako arriskuen kontrako langileen babesaren gainekoa. 12ko 664/1997 E.D., aurrerabide teknikoaren arabera, moldatzen da 1998ko martxoaren 25aren aginduaren ondorioz.

- Maiatzaren 12a 665/1997 E.D., lanean zeharreko agente kantzerigenoekiko esposizioarekiko erlazionatutako arriskuen kontrako langileen babesaren gainekoa.
- Maiatzaren 30eko, 773/1997 E.D., segurtasuneko xedapen minimoak eta osasuna babes indibiduala ekipamenduen erabilerarentzako.
- Uztailaren 18ko, 1215/1997 E.D., langileek lan gailuen erabilerarako segurtasuneko eta osasuneko xedapen minimoak ezartzen dira.
- 1970eko abuztuaren 28ko Zeramikako eta Beirako Lan Eraikuntzako Ordenantza lehen aipatutako guztiaren kontra ez dagoen guztia.
- 1435/1992 eta 56/1995 E.D., 89/392/EEEd Aholkularitza Zuzendaritzaren aplikazioko xedapen minimoak makinei buruzkoak.

→ **Langileen antolaketei buruzko araudiak:**

- Segurtasuneko eta osasuneko Batzordeak. Azaroaren 8ko, 31/1995 legea.
- Prebentzio-Ordezkarriak. Azaroaren 8ko, 31/1995 legea.

→ **Segurtasuneko eta higieneko profesionalei buruzko arauak**

- Enpresako Zerbitzu Medikoen Araudia
- Prebentzio-Zerbitzuak. 31/1995 legea.
- Urtarrilaren 17ko, 39/1997 E.D. Prebentzio-Zerbitzuen Araudia onartzen denaren legea.

→ **Tokiko administrazio arauak**

- Segurtasun eta Lanaren Higienearen inguruko Udal-Ordenantzak, ez 555/86 E.D eta 84/90 E.D.-etan agertzen denaren kontrakoa esaten ez badute.

→ **Elementu laguntzaileen araudi teknikoa**

- Probintzia kolektiboen hitzarmenak ezartzen direnak.

→ Eraikuntzaren Araudi Teknologikoa (NTE)

- N.T.E-etan, baliabideak, sistemak eta prebentziorako eta laneko segurtasunerako arauak aipatzen dira.

8.1.1.4. Kokapenaren eta obren deskribapena**8.1.1.4.1. Obren deskribapena**

Egitura, proiektu honen helburua dena, Mungiako Belako Industrialdearen 1266. Lursailean kokatzen da. Egitura, laukizuzena da eta 30x70 m-tako dimentsioak dauzka, ahala, guztira, 2100 m²-ko azalera okupatzen duelarik. Eraikinaren egitura, metalikoa da eta bi zati nagusietan banatuta dago: eremu administratiboa eta tailerra. Eremu administratiboan, komunak, aldagela, bulegoak eta jantokia kokatzen dira, eta tailerrean, fabrikazio lerroaren azpiprosesu guztiak. Bestalde, azken eremu honetan, 5tn-tako gaitasuna duen zubi garabia kokatuko da.

Ur edangarriaren hornikuntza, Bilboko Ur Partzuergoaren sare orokorrari lotuko den sarearen bitartez egingo da.

Eraikinak, horretaz aparte, estolderien sare banatzailea ere badauka, bata hondakin urentzako eta bestea, euri urentzako. Sare hauen hodiak, PVC-zkoak izango dira, diametro ezberdinekoak.

Euri uren sareak, euriaren ondorioz, estalkira jausten diren urak batzea eta garraiatzea du helburu. Ebakuazio hori, beharrezkoak diren gailuen bitartez egingo da, kanalak, hustubideak, zorrotenak, biltzaileak eta arketak. Gailu horiek, Belako Industrialdeko udal biltzaileraino bideratuko dira, zeinak Butroe ibairaino bidaliko dituen.

Ur hondakinen sareak, ordea, komunetako, dutxetako zein konketentzako urak batu eta garraiatzen ditu udal biltzaileraino. Udal biltzaile horretatik, ondoren, ur hondakinen araztegi bidaltzen ditu.

8.1.1.4.2. Obren iraupena

Obrak hasteko eguna, 2018-ko urtarrilaren 8a da, eta 47 asteko (≈ 12 hilabetetako) iraupena edukiko duenez gero, 2018ko abenduaren 21-erako bukatzea aurreikusita dago.

8.1.1.4.3. Langile kopurua

Obran zehar, guztira,

Eginkizunaren izena	Langile kop.
- Lursaileko sastrakak kentzea	6
- Lursailen mugimendua	6
- Zimentazioa	6
- Egitura metalikoa	4
- Estalkia	8
- Zolarria	6
- Forjaketa	4
- Alboko itxiturak	4
- Trenakada multzoak	4
- Zoladura	4
- Instalazioak	4
- Akaberak	2
- Urbanizazioa	6

1. Taula. Langileen faseak eta langile kopurua

Obrako programazio osoa ikusita, 12 langile aurreikusten dira aldi berean lanean, eragiketa batzuk gainjartzen direla jakinda. 10 lirateke langileak guztira, Obra Buruarekin 11 eta Arduradunarekin 12.

8.1.1.4.4. Erabilitako teknologia

Egitura, HEB perfilezko zutabeak edukiko ditu, eta horien gainean, karratu formako perfil tubularrez osatutako sareta egongo da eutsita.

Sareta hauen gainean, Z formako perfilez osatutako altzairu konformatuzko perfilak daude, zeinak itxitura osatzen duen panelak eutsiko dituzten. Estalkia bi isurkietara dago, eta horizontalarekiko 10º-ko inklinazioa dauka. Itxitura, bestalde, Sandwich motatako panelez osatuta egongo da.

Gailurreko altuera osoa 17.645 m-takoa izango da, zutabeen gehienezko altuera, 10m-takoa izango den bitartean.

Uren ebakuaziorako kanalak, 250 mm-tako zabalera edukiko du eta estalkiaren bi aldeetan kokatuko da, 1,5 mm-tako lodierako xafla galbanizatu batez eginak. Kanal hauek, estalkira isuriko den ura batzeaz arduratuko dira, eta PVC-zko zorrotenei bidaliko die. Zorroten hauen diametroa, 200 mm-takoa izango da. Hauetatik garraiatzen den ura, arketa batzuetara bideratuko da. Arketa hauen dimentsioak, 60x60 cm-takoa dira. Arketa hauen bitartez, ura udal sarera eramango dute, 200 mm-tako hodi-biltzaile baten bitartez.

Fatxada, Z formako perfil konformatuez ere osatuta egongo da. Euren gainean, Sandwich motatako panelak joango dira.

Beheko solairuko zoladura, RSS-6 motatako zolarriz egina egongo da, Arau teknologikoen arabera. Compodur markako erretxina epoxikozko kapa edukiko du gainean, 1 mm-tako lodierakoa. Eremu administratiboan, ordea, 2 motatako zolarriak daude, bata komuntentzako, aldagelentzako eta baita jantokiarentzako zolarria estaltzeko zoru zeramikoa jarriko da, eta gainontzeko zonaldeetan zoru teknikoa jarriko da. Solairuarterko forjaketarako, HAIRCOL-59 motatako forjatu laguntzailea erabiliko da.

Eraikinak edukiko duen ate nagusia, 6x7 m-tako dimentsioak dituen ate baskulagarria izango da. Ate honek, karga eta deskarga lanak errazteko baliagarria izango da. Bestalde, zonalde administratiboak, oinezkoentzako atea ere edukiko du.

Eraikinak, bestalde, emergentziarik egotekotan, ebakuazio ate bat egongo da. Zonalde administratiboko langileak, dena den, oinezkoentzako atea erabiliko dute, ahala ebakuazio atea, tailerreko langileentzako geldituko delarik.

8.1.1.4.5. Betebeharren prozesua

Jarraian, era ordenatuan, egin beharreko lanen zerrenda azaltzen da:

1. Lursaileko sastrakak kentzea
2. Lursailen mugimendua
3. Zimentazioa
4. Egitura metalikoa

5. Estalkia
6. Zolarria
7. Forjaketa
8. Alboko itxiturak
9. Trenakada multzoak
10. Zoladura
11. Instalazioak
12. Akaberak
13. Urbanizazioa

8.1.1.5. Obran sartzeko babesak

Pertsona baimenduak soilik onartuko dira obran, betiere derrigorrezko babes elementuekin. Homologatutako kaskoa nahitaezkoa da obra guztian.

8.1.1.6. Obraren gauzatzearen aurreko lanak

Obrak hasi aurretik, lursailaren perimetroa hesitu behar da planoari jarraituta eta hurrengo baldintzak betez:

- 6 m-tako gutxieneko zabalera duen atea edukiko du, ibilgailuen sarbiderako.
- Oinezkoentzako ate independentea edukiko du.
- Hesiak, 2 m-tako altuera edukiko du.

Horretaz aparte, hurrengo elementu guztiak seinaleztatu beharko dira:

- Obra kartela
- Kaskoaren erabilera derrigortzen duen kartela
- Obrarekin zerikusirik ez duen ororentzako debekua adierazten duen kartela
- Ibilgailuen sarrera eremuan aparkatzea debekatuta dagoela dioen kartela
- Ibilgailuen sarreratik oinezkoen sartzea debekatzen duen kartela

Era berean, Tentsio Baxuko Araudi Elektroteknikoa kontuan hartuta, elektrizitate hargunearentzako etxetxo berezia egin beharko da obrak hasi aurretik.

8.1.1.7. Higiene zerbitzuak, aldagelak eta obra bulegoa

1627/97 E.D.-ren 4. Eranskinaren arabera, obrak, hurrengo garbitasun zerbitzu minimoak eduki beharko ditu:

- Aldagelak, giltzapeko banakako jesarleku eta armairuekin
- Ur hotzeko, ur beroko konketa dagokion ispiluarekin
- Ur beroko zein hotzeko dutxak
- Komunak

Elementu hauek, elementu laguntzaileekin osatu daitezke.

Langileek euren etxeetan edota lekuren baten bazkaltzeko denbora dutenez, ez da beharrezkoa jantoki bat jartzea obretan.

486/92-ko E.D.-aren 6. Eranskineko A.3 atalean azaltzen den bezala, obran lehen laguntzarako materialak eduki beharko ditu.

- Botika kutxa bat egon beharko da obra etxetxoan, non, desinfektatzailea, antiseptikoa, gaza esterilak, algodoi hidrofiloa, benda, esparatrapua, hesgailuak, artaziak, pintzak eta erabili eta botatzeko eskularruak egongo diren. Materiala, aldizka ikuskatuko da eta kadukatutako elementuak ordezkatu.
- Larrialdietarako lokala egon beharko da, lehen laguntzarako, obraren baitan 50 pertsona baino gehiago lanean badaude. Lehen laguntzetako lokal horiek, botika kutxa bat, esku ohe bat eta ur edangarriko iturri bat eduki beharko du. Bai lokala, zein lehen laguntzetarako materialak, behar bezala seinaleztatuta egon beharko dira.
- Espezializatutako asistentzia zentroa. Hurbilen dagoena, Mungiako anbulatorio da, zeina, Belakoko Industriadetik 3,2 km-tara dagoen. Bertara, zauritu arinak eramango dira. Zauritua egoera larrian badago, Gurutzetako Ospitalera eraman beharko da, zeina Belakotik 22 (22km) minutura egongo den.

8.1.2. PREBENTZIO BALIABIDEAK

Legeak, Prebentzio Baliabide bezala, obretako prebentzio akzioen betetzea ikuskatzeaz arduratzen diren pertsonak dira. Horiek, formakuntza berezia edukiko dute prebentzioaren inguruan.

Beraz, 1627/97-ko E.D.-ren 1.eranskinaren arabera, prebentzio baliabide baten presentzia obretan derrigorrezkoa izango da, baldin eta soilik baldin:

1. Arriskuak handitu daitezkeenean, obrek exijitzen dituzten lanek eraginda.
2. Arriskutsu bezala kalifikatutako lanak burutzen badira.
3. Lan Inspektzioak eta Gizarte Segurantzak ahala eskatzen badu.

Prebentzio baliabide horren oinarritzko funtzioak eta erantzukizunak, hurrengoak dira:

- Aktibitate zehatz batzuen segurtasun baldintzak ikuskatzea, aktibitatea hasi baino lehen, Segurtasun Planean azaltzen diren xehetasunak betetzen direla egiaztatuz.
- Aktibitatea gauzatzen ari denean, Segurtasun Planean zehaztutako espezifikazioak betetzen direla egiaztatzea.
- Kontrolatzen ari den prozesua ezagutzea, baita Segurtasun Planean zehazten diren neurri prebentiboak.
- Bereziki arriskutsuak diren ekintzetan presente egotea.
- Edozein arau hauste ikustekotan, haren gainetik daudenei komentatu beharko die, eurek beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

8.1.3. MEDIKU AZTERKETAK, LEHEN LAGUNTZAK ETA ZAURITUEN AZTERKETAK

Indarreko Legearekin, Laneko Arriskuen Prebentzioarekin eta Prebentzioko Kudeaketako Sistema Integratuarekin ados, laneko langile guztiek urteroko ikuskapen medikoetara joan behar izango dute. Gainera, lanari lotutako langile guztiek, osasun-azterketa, lanak hasi baino lehen egin behar izango dute.

Ustekaberik egotekotan, lehen laguntzak jaso ahal izateko, lan-etxolan botika-kutxa bat egongo da, “8.1.1.7 Higiene zerbitzuak, aldagelak eta obra bulegoa” atalean zehaztu den bezala. Lanean lehen laguntzeko heziketa jaso duten langileak egongo dira.

Zauritu arinak badira, hauek, Mungiako anbulatoriora eramango dira, 3,2 km-tara aurkitzen dena. Mutua-ra ere eraman ahal izango dira. Istripua dimentsio larrietakoa bada eta zaurituek arreta handiagoak behar badituzte, Asistentzia Mediko Espezializatuko Zentrora eramateari ekingo zaio, hau da Gurutzeetako (Barakaldo-ko) Unibertsitateko Ospitalera. Zaurituak, lan-ibilgailuetan garraiatuak izango dira, arrazoi handiengatik posiblea ez izatekotan, anbulantzien zerbitzura deituko beharko da.

Nahitaezkoa izango da, Kontratatik, kartel ikusgarria jartzea botika-kutxatik edo lehen laguntzetarako asistentzia lokaletik hurbil, ondorengo larrialdi telefonoak:

- Larrialdiak 112
- Ertzaintza (Mungia) 944041480
- Udaltzaingoa (Mungia) 946741216
- Suhiltzaileak 080
- Babes zibila 1006
- Toxikologiko informazioa 915620420

8.1.3.1. Asistentzia medikoa

8.1.3.1.1. Langileen osasun azterketak

Bizkaiko kolektibo hitzarmenaren 71. Artikuluarekin bat eginez, eta ahal den neurrian lan gaixotasunak ekidit55eko asmoz, Kontratatik, indarrean dagoen laneko araudiarekin bat, langileen kontratazioa egin baino lehen, euren azterketa medikoak egin beharko dituzte.

8.1.3.1.2. Botika-kutxa

Eramangarria den botika kutxa, lehen laguntzetarako etxolan egongo da eta hurrengo produktuak eduki beharko ditu.

- Desinfektatzaileak eta antiseptikoak
- Gaza esterilak
- Algodoi hidrofiloa
- Bendak
- Esparatrapua
- Hesgailu itsaskorrek
- Artaziak
- Pintzak
- Erabili eta botatzeko eskularruak

Erabiltzen diren heinean botika kutxa bete beharko da.

Lehen laguntzetarako etxolak, hurrengo elementuak eduki beharko ditu:

- Esku ohea
- Botika kutxa
- Ur edangarriko iturria

8.1.3.1.3. Lehen laguntzen prozedura

Istripurik egotekotan, B.A.S. protokoloa jarraitu beharko da: Babestu, Abisatu eta Sorotsi.

- Babestu: istripuan presente dagoen oro, bere burua babesteko ardura eduki beharko du, baita zauritutako pertsona ere.
- Abisatu: Obra Buruari jakinaraziko zaio gertatutako istripuaz. Istripu larria izatekotan, Osasun zerbitzuei ere jakinarazi beharko zaie.
- Sorotsi: Behin babestuta eta abisua emanda dagoela, zaurituaren bizi-zeinuak aztertu beharko dira hurrengo ordenan: konortea, arnasketa eta taupadak.

8.1.3.1.4. Zaurituen ebakuazioa

Zurituen larritasun mailaren arabera, Osasun Asistentzia Zentro batera edo bestera eramango dira.

- Zauritu larriak: hurbilen dagoen ospitalera (Gurutzetako Ospitalea)
- Zauritu arinak: hurbilen dagoen anbulatoriora (Mungiako anbulatorioa)

Obra buruak, bestalde, anbulantziara deitzeko ardura edukiko du.

❖ Anbulantzia telefonoak:

- | | |
|----------|-----------|
| ○ DYA | 944834000 |
| ○ Mungia | 946741216 |
| ○ Bilbao | 940547932 |

❖ Osasun asistentzia zentroetako telefonoak

- | | |
|-------------------------|-----------|
| ○ Gurutzetako Ospitalea | 945629000 |
| ○ Mungiako anbulatorioa | 946007150 |

8.1.3.2. Istripuen Komunikaziorako Protokoloa

Jarraian, Komunikazio Protokoloa osatzen duten agente ezberdinen funtzioak azaltzen dira, Laneko Istripuren bat gertatzekotan:

❖ **Zauritua/Testigua**

Zauritua bera izango da Komunikazio Protokoloari hasiera emango diona, obrako arduradunari gertatutakoa jakinaraziz. Zaurituak berak ezin izango balu komunikatu, zaurituaren testigua izango da Komunikazio Protokoloa hasiko duena, baina ordena honetan egingo du:

- Lehen laguntzak, bere ezagueren arabera, zaurituari ematea.
- Lesio larriak badira, zauritua ez mugitzea eta 112 larrialdi-telefonora deitzea.
- Enpresa kontratistaren lanaren arduradunari berehala informatzea.
- Lanaren arduradunaren edo osasun-pertsonal espezializatuaren helduerara arte zaurituaren ondoan egotea, hura asistentzia medikoko zentro hurbilenera eramateko.
- Istripu arinik egotekotan, arduraduna faltan, zauritua udalaren anbulatoriora eraman.

❖ **Enpresa kontratistaren obra arduraduna**

Hurrengo argibideak jarraituz jokatu du:

- Berehala Lan-Nagusiari, unera arte bildutako informazio guztia komunikatzea.
- Zaurituaren ondoan egotea, pertsonal espezializatua heldu arte edo instrukzio egokiak jaso arte.
- Istripu arinik egotekotan biktima asistentzia zentro hurbilekoenera eramatea.

❖ **Obra-burua**

- Enpresa kontratistaren Prebentzio Arduradunari informatu beharko dio, honek Prebentzio Zerbitzu propiora informa dezan. Ez balego Prebentzio arduradunik, Obra Buruak berak, Prebentzio Zerbitzuari komunikatzeaz arduratu beharko da. Hurrengo epeak kontuan hartu beharko dira komunikazioa egiteko:
 - Istripu inbestigazioak, Lan Administrazioa gehienez 5 egunetan jakinarazi beharko zaio.
 - Istripu larriak izatekotan, Probintziako Lan Inspektioari jakinarazi beharko zaio, gehienez 24 ordutan.
- Obrako Segurtasun eta osasun koordinatzailea istripuaren gainean informatu beharko du.
- Enpresa bakoitzaren protokoloen arabera, haren nagusi hierarkikoei jakinarazi beharko die.
- Zaurituaren familia informatu beharko du, beharrezkoa izatekotan.
- Istripu larria edota istripu hilkorra izatekotan, Polizia Judiziala abisatuko du.

❖ **Segurtasun eta Osasun koordinatzailea**

- Obra buruaren partetik, Komunikatutako ezbeharrari buruz eguneratutako artxibo bat mantenduko du.
- Istripua komunikatu behar izango dio Obra Zuzendariari.
- Obra Buruarekin harremanetan egon behar izango du momentu oro, egoeraren gainean eta zaurituaren bilakaeraren gainean informatzeko.
- Istripu larria bada, txosten bat eskatuko dio Obra Buruari istripuaren ikerketaren gainean.

❖ **Obra zuzendaria**

- Istripu larriak egotekotan, Probintzia-Zerbitzuaren Nagusia informatuko du.

- Segurtasuna eta Lanaren Osasunaren Koordinatzailearekin komunikazioa mantenduko du momentu oro.
- Enpresa kontratistak sortutako Ikerketa Batzordean parte hartu behar izango du.

8.1.4. SUTEEN AURKAKO PREBENTZIOA OBRAN

Edozein eraikitze obrak, suteak sortzeko arrisku handia dauka. Arrisku horri aurre egiteko, hurrengo neurri prebentiboak hartu beharko dira.

- Sua eragitea, pizgailuen erabilera, soldadurak egitea debekatzen da material sukoiien aurrean, ez balego su-itzaigailu egokirik.
- ABC-a hauts su-itzaigailuak, eraikineko solairu bakoitzeko bat, jarriko da. Hauek leku zehatzean jartzeko beharra egotekotan, aldageletan jarriko dira.
- Lanean jarriko diren su-itzaigailuak, berriak izango dira, estreinatzeke egongo dira eta bere pisua 6kg-takoa izango da. Baimendutako enpresa baten bitartez, ikuskatuak izango dira. Su-itzaigailuen erabilerako arauak hurrengoak izango dira:
 1. Suterik egotekotan, hartu su-itzaigailua.
 2. Akzionamendu mandoa deuseztatzen duen pasadorea kendu.
 3. Haizebean jarri eta sugarrak eta kea zugana joatea ekiditu.
 4. Su-itzaigailuari eragin sugarrak amatatu arte.
 5. Ezin badu sutea kontrolatu, Suhiltzaileak abisatu lehen bait lehen.

8.1.4.1. Hondakinen eta materialen biltegiatzea

8.1.4.1.1. Materialen bilketa

Obran erregai mota bi aurki daitezke: solidoak eta likidoak.

Erregai solido bezala, enkofratuko egurra, aroztegiko elementuak, zoladurak eta estaldurak, produktu plastikoak, zuntzak eta iragazgaitzak direnak sartzen dira.

Likido bezala, ordea, obrako makinaren funtzionamendu olioak edota labaingarriak kontsideratu daitezke.

Bai erregai solidoak zein likidoak, modu isolatu batean pilatu behar dira, batez ere likidoak. Erregai solidoak, elkarrekin nahastu barik pilatuko dira. Bi erregaiekin arreta handia eduki behar da, eta instalazio elektrikoetatik aldendu.

8.1.4.1.2. Botatzeko produktuak

Hondakinak, txirbilak eta lanagatik suertatu daitezkeen hondakinak, erregulartasunarekin aldendu behar dira, makinetako ingurua egunero garbi utziz.

Produktu hauek alde zuzenetik zehaztutako lekuetan pilatuko dira, beste batzuekin eman daitezkeen nahastea saihestuz. Pilaketa leku horietan, labaingarrietako eta margoetako soberakinak ere bota ahal izango dira.

8.1.5. LANEKO PREBENTZIOAREN INGURUKO INFORMAZIOA

Obran presente egongo den langilearen heziketa, segurtasun-hitzaldien bitartez egingo da ikus-entzunezko baliabideekin osatuz. Helburua, egin behar izango dituen lanetarako berezko arriskuak eta horiek baliogabetzeko edo neutralizatzeko segurtasun-neurriak ezagutzea izango da.

Hitzaldi hauek Enpresa Eraikitzailearen aurkako Prebentzioko Zerbitzuaren laguntzaz antolatuko dira, baita Mutuaren Lan Istripuen aurkako Prebentzioko Departamentuaren laguntzaz ere.

Halaber, Lehen Laguntza-lkasteroa antolatuko da obran, Mutuako Lan Istripuetako osasun-laguntzaile teknikoak emango duena.

8.1.6. BALDINTZA TEKNIKOAK

8.1.6.1. Makinen baldintza teknikoak

1495/86 E.D. -an aipatutakoa beteko da, Makinen inguruko Segurtasun araudiari buruzkoa. Bereziki, 4.kapituluan aipatzen diren argibideak bete beharko dira.

Jarraian, erraminta-makinen eta makina batzuen zerrenda agertzen da.

- Makinaria:
 - Hondeatzeko makina

- Hormigonerazko kamioa
- Dumper
- Kamioi baskulagarria
- Hormigonatuarentzako ponpa
- Garabia
- Pala
- Igotzeko plataforma
- Bibradorea
- Erreminta-makina
 - Zirkulu zerra
 - Material zeramikoa ebakitzeko makina
 - Konpresore motorea
 - Mailu pneumatikoa
 - Zulatzaile elektrikoa
 - Rotaflex
 - Lixagailua

Makina guztiek hurrengoak eduki beharko dituzte:

- “CE” marka
- Adostasun agiria
- Instrukzio eskuliburua

Antzinatearen arabera, aurrekoa bete ezin duten makina horiek, adostasuna gainditzea exijituko zaie, 1215/97 E.D.-ren arabera.

Kokapen finkodun makinek, baimendutako pertsona kualifikatuek muntatuko dute. Bestalde, makina hauen mantenua euren esku geldituko da. Instalazio eta mantenu eragiketak, makina bakoitzeko erregistro liburuan azaldu behar dira.

Kokapen aldakorreko makinak, adituen bitartez ikuskatuak izan beharko dira obretan erabili aurretik. Fabrikanteak ematen dituen mantenu argibideekin egingo da makina horien mantenua.

8.1.6.2. Baliabide laguntzaileen baldintza teknikoak

Jarraian, obran erabiltzea aurreikusten diren elementu laguntzaileak zerrendatzen dira.

- Aldamio tubularrak
- Eskailerak
- Babeserako markesinak
- Eskailerak eta aldapak
- Igarotze plataformak

8.1.6.3. Babeserako baliabideen baldintza teknikoak

Prebentziozko gailuak, bi taldeetan bereizten dira, Babes indibidualeko Ekipoak (EPI) eta Taldeko Babes Ekipoak (EPC).

EPIak, langileek eramaten dituzten gailuak dira, eta arrisku konkretuentzako babesa eskaintzen dute. Ez dute arriskua ezabatzen eta euren babes funtzioa mugatua dago. Arriskua jasotzen duen pertsonaren gain eragiten dute, ez arriskuaren gain. Horregatik, euren erabilera orokorrean mugatu egiten da.

EPC-ak, ordea, langile batzuk aldi berean babestea dute helburu. Hauek, arriskuaren gain eragiten dute zuzenean hura murriztuz, eta langile baten gain eragin beharrean, langile talde baten gain eragiten dute. Euren erabilera beharrezkoa suertatzen da.

8.1.6.3.1. EPIak

Edozein Babes Indibidualeko elementu, Azaroaren 20-ko 1407/92-ko E.D. -ari egokitu egiten da. Elementu horiek, "CE" marka eduki beharko dute. Horretaz aparte, Maiatzaren 30-ko 773/1997-ko E.D. ere bete beharko dute.

Orokorrean, edozein babeserako elementu, bizitza erabilgarri bat edukiko du. Edozein zirkunstantziatik elementua kaltetzen bada, hura aldatu egingo da. Gainera, EPI bakoitzaren espezifikazioak bete behar dira.

→ *Segurtasun kaskoa*

EN 397/1995ko eskaera orokorrak beteko ditu, isolamendu elektrikoaren, alboko deformazioaren eta metal urtuaren zipriztinen ingurukoak.

→ *Lerro malguko erortzearen kontrako sistema*

EN 363-ren arabera, energia desagerrarazteko gailuren bat jarri ahal zaio bai erortzearen aurkako irristatze sistemari, heltzeko elementuari edota ainguraketa lerroari.

“8.1.8. DOKUMENTAZIO GRAFIKOA” atalean, langileek eraman beharreko EPlak agertzen dira.

8.1.6.3.2. EPCak

Hauek ere, EPlak bezala, erabilgarritasun bizitza bat edukiko dute, babes elementu bakoitzari aplikatzen zaion araudi teknikoaren arabera.

Babes kolektiboko bat jartzeak ezin du arrisku gehigarri bat suposatu. “8.1.8. DOKUMENTAZIO GRAFIKOA” atalean, babes kolektiboko gailu gatzuen aplikazioak agertzen dira.

→ *Hesitzea, sarbideak eta seinalizazioa*

Obrako perimetro guztia itxiko dituzten heziak jarriko dira. Euren altuera maximoa 2m-takoa izango da. Heziek, gauerako seinalizaziorako argiak edukiko dituzte.

Hezi hauek, hondaketa ertzetik gutxienez, 1,5m-tara kokatuko dira. Hezia xafla metalikoz egingo da eta obren bukaerara arte mantenduko da.

→ *Ertzen babeserako behin behineko sistemak*

Barandak, 90 cm-tako altuera minimo bat edukiko dute. 30 kg-tako karga jasan beharko du norabide horizontalean. Erabili ahal diren materialak, egurra, altzairua, aluminioa, edota euren arteko nahasketa izan daiteke.

→ *Sare perimetralak (EN 1263 Araua)*

Hutserako erortzearen kontrako babeserako, urka motatako sareak erabiliko dira.

→ *Segurtasun uhaleko euste kableak*

EN 358 eta 363 arauetan ezarritako neurriak beteko dituzte. Esfortzuak jasateko haina erresistentzia eduki behako dute.

→ *Segurtasunezko seinalizazioa*

Apirilaren 14ko 485/97-ko E.D.-ren arabera egingo da.

8.1.6.4. Behin-behineko instalazio elektrikoaren baldintza teknikoak

Behin behineko instalazio elektrikoa, araudi espezifikoan zehaztutakoari egokituko da. Gainera, hurrengo ere kontuan hartu beharko da:

→ *Kableak*

- 300 mA-eko babes diferentziala onartu arren, argiteria-lerroak babestuta geratuko dira 30 mA-eko diferentzialarekin.
- Erabilitako eroale guztiak 100 V-eko tentsio nominaletik bakartuko dira gutxienez, eta akats nabarmenik gabe. Tarte akastunik ez da onartuko zentzu honetan.
- Koadro orokorretiko banaketa bigarren mailako koadroetara, edo solairuko koadroetara, lurperatutako kanalizazioen bitartez egingo da.
- Kableetako eta mahuketako linea egitekotan, oinezkoentzako pasagune lekutik 2 m-etako altuerara egingo da.
- Lan-bideak gurutzatzeko kableetako linea, lehenago esan bezala, lurperatuta egongo da. Kableen pasatzea oholetako babes iraunkorraren bitartez seinaleztatuko da.
- Mahuken arteko loturak egin behar izatekotan hurrengo hartuko da kontuan:
 - Altueran egingo dira. Haien lurtean mantentzea debekatzen da.
 - Mahuken arteko behin-behineko loturak normalizatutako konexioen bitartez egingo dira.
 - Behin betiko loturak normalizatutako lotura kuxak erabiliz egingo dira.
- Beheko solairuko bigarren mailako koadroen interkonexioa, lurperatutako kanalizazioen bitartez egingo da.
- Luzatze-mahukek hurrengo beteko dute:
 - Denboraldi motzetara zuzenduta badaude, lurzorutik etzanda eraman ahal izango dira baina itxitura bertikaletara hurbilduta.

- Normalizatutako konexioen bitartez lotuko dira.

→ *Etengailuak*

- Behe-Tentsio-Elektronika Araudian zehaztutakoarekin bat etorriko dira.
- Etengailuak normalizatutako kutxen barnean jarriko dira.
- Etengailu-kutxek normalizatutako seinalea edukiko dute bere atearen gainean atxikita, "KONTUZ ELEKTRIZITATEA" abisuarekin.
- Etengailu-kutxak paramentu bertikaletatik esekiko dira.

→ *Koadro elektrikoak*

- Metaliko edo material plastikozkoak izango dira. IK08 IP44 babesa edukiko dute, atearekin eta giltzarekiko segurtasun kardaberekin, UNE-20324 arauaren arabera.
- Haize zabalerako mota izan arren, euri-uretik babestuko dira.
- Koadro elektrikoek lurrera konektatutako karkasa izango dute.

→ *Energia harguneak*

- Korrante-harguneak omnipolar ebaketa etengailuez hornituta joango dira. Erabiliko ez direnean hauek tentsiorik gabe uztea baimentzen dute.
- Koadroetako korrante-harguneak blindatutako normalizatutako larakoen bitartez egingo dira.
- Korrante-hargune bakoitzak aparatu bakarra energia elektrikoaz hornituko du.
- Korrante-harguneak ez dira sartzen errazak izango, erreminta berezirik erabili gabe.

→ *Zirkuituetako babesak*

- Instalazioak beharrezkoak diren etengailu automatikoak guztiak edukiko ditu.
- Etengailu automatikoak banaketa-koadroetako korrante-harguneko llinea guztietan jarrita egongo dira.
- Zirkuitu orokorrak etengailu automatiko magnetotermikoez ere babestuta egongo dira. Zirkuitu elektriko guztiak disjuntore diferentzialen bitartez ere babestuko dira.

→ *Argiztapen instalazioa*

- Instalazioko mantenua, argiketari batek egingo da eta txartel profesional egokia eduki beharko du.

8.1.6.5. Osasun zerbitzuen baldintza teknikoak

Obrako behin behineko instalazioak, Segurtasun eta Garbitasun Agindu Orokorren 39, 40, 41 eta 42 artikuluetan zehaztutakoarekin bat eginez egingo dira.

Zerbitzu komunak eta osasunezko zerbitzuak, hurrengoak bete beharko dute:

→ *Ur edangarriaren hornikuntza*

- Edateko uraren hornidura udal-hornikuntza sarearen loturaren bitartez egingo da.
- Langileek edateko ura eduki behar izango dute obran.

→ *Dutxak eta aldagelak*

- Prefabrikatutako aurrez ikusitako moduluek konforta bermatzen duen isolamendu termiko eduki beharko dute. Isolamendu hau nahikoa ez denean, aire girotu-sistema eduki beharko dute.
- Aldagelak eta dutxak gizonentzat eta emakumeentzat bananduta egongo dira.
- Aldageletarako dimentsio minimoak izango da 2 m²-koak izango dira. Dutxa kopuru minimoa hamar langile bakoitzeko dutxa bat izango da.
- Lurzoruak, paretak eta sabaiak lauak eta iragazgaitzak izango dira.
- Aldagelek sarbide errazekoak izan behar dute eta eserlekuak eduki.

→ *Komunak*

- Kabinen dimentsio minimoak, 1x1.2 m²-koak izango dira, 2.3 m-tako altuerarekin.
- Ateek kanpokotik ikuspena galaraziko dute erabat. Barruko itxigailua eta esekigailu bat izango dute.

→ *Saneamendua*

- Ur hondakinen ebakuazioa, udal orokorreko sarerako konexioaren bitartez egingo da.

→ *Kokapena*

- Lehen aipatutako lokalak zonalde garbietan jarriko dira, materialen pilaketetatik urrun.

8.1.7. ARRISKUEN IDENTIFIKAZIOA ETA NEURRI PREBENTIBOEN AZTERKETA

8.1.7.1. Obra guztiari eragiten dizkioten arriskuak

Jarraian, obrarengain eragiten duten arriskuak agertzen dira.

OBRA GUZTIAN	
ARRISKUAK	
X	Langileen erortzea
X	Langileen gain objektuak erortzea
X	Bitartekarien gain objektuen erortzea
X	Objektuen kontrako kolpeak
X	Haize bolada handiak
X	Hezetasun eraginpeko lanak
X	Elektrizitatearekin kontaktu zuzenak edo ez-zuzenak
X	Gain-esfortzuak

PREBENTZIO NEURRIAK		HARTZE GRADUA
X	Obrako zirkulazio bideetan garbitasuna	permanentea
X	Lan tokietako garbitasuna	permanentea
X	Tentsio baxuko linea elektrikoetako babesa	permanentea
X	Argiztapen egokia	permanentea
X	Makinen akzio erradiotik urruntzea	permanentea
X	Obren seinaleztapena	permanentea
X	Balizamendu eta Seinalizazio zinten erabilera	hezitzearen alternatiba
X	Hondakinen ebakuazioa	permanentea
	Eskailera laguntzaileak	noizbehinkakoa
X	Informazio espezifikoa	arrisku konkretuentzako
X	Formakuntza hizketaldiak	ohikoa

BANAKAKO BABES ELEMENTUAK		ERABILERA
X	Segurtasun kaskoa	permanentea
X	Segurtasun botak	permanentea
X	Laneko arropa	permanentea
X	Babeserako arropa edo arropa iragazgaitza	eguraldi txarrarekin
X	Segurtasun betaurrekoak	ohikoa

8.1.7.2. Lan arrisku bereziak

Hurrengo taulan, obren garapenarentzako beharrezkoak diren lanak agertzen dira, baina arriskuak eratu ahal dituztenak. Arrisku horiek murrizteko hartu beharreko neurriak ere azaltzen dira. Datu hauek, 1627/97-ko E.D. -ren II. Eranskinetik lortu da.

ARRISKU BEREZIKO LANAK	HARTU BEHARREKO NEURRIAK
<p>x</p> <p>Erorketak, hondaketak...etab. eragin ahal dituzten lanak</p>	<ul style="list-style-type: none"> EPI-etako erabilera egokia. Segurtasun argibideak errespetatu.
<p>x</p> <p>Elektrizitatearekin kontaktuagatik sortu daitezkeen arriskuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> Lerro elektrikoaren egoera ezagutu. Eremuen infrastrukturen informazioa eskatu. Goi-Tentsioko lerroen seinaleztapen egokia. Lerro horiekiko segurtasun distantziak errespetatu. Beharrezkoa bada, hornikuntza etetea eskatu. Kableetako edozein manipulazioa, pertsonal adituengatik egin beharko da.

x	Aurrez-fabrikatutako elementu astunen muntaiaketa eta desmuntaketa suposatzen duten lanak	<ul style="list-style-type: none"> • EPI-etako erabilera egokia • Makinen erabilera egokia. • Segurtasun argibideak errespetatu.
----------	--	---

8.1.7.3. Obrako fase bakoitzari eragiten dioten arriskuak

8.1.7.3.1. Lurren mugimendua eta hondeaketa

→ *Egon daitezkeen arriskuak:*

- Harrapaketa eta kolpeen arriskua, bereziki makinak atzerantz badoaz edo behin behineko bira ematen dutenean.
- Hondeatzeko makinatik elementuak edo lurra jausteko arriskua.
- Mekanismoen erorketa makinara igo edo jaisteko puntuetan.
- Hondeatzeko makinen palarekin goian ibiltzea.
- Kamioiak uhal arazoak dituenen.
- Kamioia kargarekin joaten denean harriak jausteko arriskua.
- Lurra kentzen ari den gunera erortzeko arriskua.
- Kamioiak bai irten edo sartu egiten direnean kolpeak egoteko arriskua.
- Makinen iraulketa arriskua.

→ *Taldeko babes elementuak:*

- Makinak lanean daudenean ez da pertsonen igaroa utziko.
- Egon daitezkeen lur jauziak direla eta material egokiaren erabilera.
- Lur kenketa burutzen hasi baino arinago informatu egin behar da lur azpian egon daitezkeen instalazioez, elektrizitatea, telefonoa...

→ *Banakako babes elementuak:*

- Kasko homologatuen erabilera.
- Hautsa dagoen kasurako betaurreko berezien erabilera.
- Zarata ekiditeko kaskoak.
- Bibrazioak ekiditeko gerrietako makina erabiltzen duten pertsonentzat.
- Gomazko botak pertsona guztientzat (behar izanez gero).

- Urezko jantziak pertsona guztientzat (behar izanez gero).

8.1.7.3.2. Zimentazioak eta egitura metalikoa

→ *Egon daitezkeen arriskuak:*

- Langileen erorketak maila berdinean.
- Langileen erorketa maila ezberdinean.
- Langileen erorketa zulora.
- Gauzen erorketa langileen gain.
- Gauzen kontrako kolpeak.
- Harrapaketak eta zapalketak.
- Harrapaketak, talkak eta kamioien iraulketa.
- Ebaketak eskuetan eta hanketan.
- Neurri gaineko indarra.
- Zaratak.
- Bibrazioak.
- Gorputz arraroak begietan.
- Elektrizitate gainkarga zuzenak zein ez zuzenak.
- Eguraldi txarra.
- Umel dauden guneetako beharra.
- Lurren erorketa.
- Suteak edo leherketak.

→ *Taldeko babes elementuak:*

- Eskudelen erabilera.
- Pertsonak ibiltzeko guneak edo igarobideak.
- Sare bertikalak.
- Sare horizontalak.
- Segurtasun aldamiok.
- Gune horizontaletan egurren edo panelen kokapena.
- Beharrezko eskailera, bigarren mailakoak.
- Makinen mantendu egokia.
- Segurtasun kabinak.
- Argi natural edo artifizial egokia.

- Igarobide eta lan guneen garbiketa.
- Sare elektrikoetara segurtasun distantzia.

→ *Banakako babes elementuak:*

- Buruko segurtasuna.
- Segurtasun zapatilak edo botak.
- Larruazal eskularruak.
- Eskularru iragazgaitzak.
- Segurtasun betaurrekoak.
- Belarrietako babesak.
- Segurtasun gerrikoa.
- Bibrazioak ekiditeko gerrikoa.
- Lanerako arropa.
- Uretarako jantzia.

8.1.7.3.3. Saneamendua

Saneamendurako instalazio hauek lanean pertsona kopuru maximo bat dagoenean hartzen dira kontuan, hau da, pertsona kopurua maximoa denean hurrengo saneamendu instalazioak burutuko dira.

Obra honetan gehienez 12 pertsonak egingo dute lan aldi berean. Beraz aldagela batzuk jartzea beharrezkoa da:

- 2 dutxa
- Komuna
- Konketa
- Behin behineko sistema elektrikoa
- Eskuoihalentzako eta xaboiarentzako lekua
- Giltzapeko armairuak
- Ur beroa eta ur hotza
- Garbitasuna egon beharko da

8.1.7.3.4. Estalkia

→ *Egon daitezkeen arriskuak:*

- Langileen erorketak maila berdinean.
- Langileen erorketa maila ezberdinean.
- Langileen erorketa zulora.
